



**BARREN**  
**TOKIKOM**




# Sei handiak begiz jota

Miguel Angel Montes



## *Jose Ignacio Sarasua Garate*

2017ko apirilaren 11n hil zen, 60 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Jose Ignacio Sarasua Garate*

***Betirako izango zaitugu gogoan***

Zure kuadrilla



## *Jose Ignacio Sarasua Garate*

***Izan zarenagatik  
eta erakutsi duzunagatik,  
ez zaitugu inoiz ahaztuko.***



**HARITZ**



ARKAITZ IRURETA ARRIETA



## “Ez ete genduke, Txiki Egunetik aparte, alberdanian horditzerik lortuko?”

bon Picant, gaurkuan, gai kokin bati eskua sartzia pentsatu dot. <http://www.yeswefuck.org/> webaren berri eduki dot; edertasun kanonetatik kanpo ere sexua badaguala aldarrikatzeko web orrixa da aittatutakua.

Zer pentsatu haundixa eragin ditt, jendarte aske eta aurretatu batian bizi gerala uste izan arren, oindiok tabu asko ditugula –edo nik behintzat badittudala– ikustiak.

Jakiña da erlijio batzutan sexu harremanak edukitzia pakatua, zikiña eta ez purua dala emakumientzat, kasu batzutan klitorixa moztetara. Pentsatzen dot oindiok emakume askok sufritzen dittuela ondorixo inkontzientiak, sexua gizonen kontua balitz bezela, gizonak sexu ezarekin zigortuz adibidez. Baiña karga horretatik askatzian, emakumia sexualki gizona baiño aktibuagua dala diue. Bazenekixan emakumia dala obulazua hillerokotik ezberdinduta daukan animalixa bakarrenetakua?

Edozein kasutan, gaurkuan, beste aldera ere egin nahi dot jauzi; guk geuk, gizonok, dittugun muga inkontzienteetaz jardun nahi dot.

Inkesta baten arabera, emakume heterosexual gehixago animatuko lirake sexu berekuen artian harremanak edukitzera, gizona heterosexualak baiño. Zeren beldur gara: gustatuko ete jakun ala horregaittik ez ote garan hain gizon izango? Hizkuntziak asko esaten digu beldur ezkutu horietaz. Lagun batek esan izan ditt popatik hartzera zentzu txarran esaten dogunian, gure sexualitatiaren gabeziez ari garala, beretzat popatik hartzera juatia positibua dalako.

Ez naiz orain G puntuaren billa hasiko, baiña uste dot *Yes We Fuck* egitasmuak nere errealitiaz erreflexionatzera ekarri nauala. Benetan iraultzailea begittandu jata.

Ez ete genduke, Txiki Egunetik aparte, alberdanian horditzerik lortuko?



IBON SERRANO LASA

## “Shaolindarrok, sexua harreman afektibo baten gailur bihurtu, hori baita erronka”

**B**aish! baish! Utikan pornografia! Ar-Khadi mouffi errukigarria, zer gerta zaizu? Uste bainuen persiarrek, Xiismotik harat, bazeneukatela belusez estaliriko itzalpe intimoan Zoroastrok ondare utzitako erotismo-arekiko lurrin eta zantzu fina.

Zugandik espero bainuen, behin sexua goiburu harturik, erotismoak, misterioak eta pentsaera sakonak topo egiten duten filosofia sasanidar sakonaz ehunduriko *orientalismoz* liluratuko ninduzula.

Horren orde, ordea, mendebaldarren konplexu, kontraesan, hipokresi eta berekoikeriz jantzirik zatozkit. Elburz mendilerroko zure leizezulora ere heltzen omen zaizu aire kirastua.

Bada, Ra's Al Ghul maisuaren hitzak gogoraraziko dituz zuzentze bidean.

“Shaolindarrok,

Onartu behar sexuaren garrantzi sinbolikoa bere adiera orotan, batik bat gaztaroko birsortze biologiko aroan. Zorigaitzoz, mendebaldarrek erabat desitxuratu dute grina honen testuinguru eta esanahia.

Tradizio judeokristauak agindu izan dien kastitate eta ilun-

keriatik ihesi, argi bila, beste ertzean bukatu dute supituki eta itsuki; “*Tout livre*” den lurraldean hain zuzen ere, zeinetan sexua merkantzia bilakatu duten, kontsumo azkarreko “*low cost*” produktu lizun hutsa. Kausa, motibazio zein efektu, dena bateginik morokiltzen delarik.

Gutxi balitz, bizitzaren arlo sakratu honetan ere, kategorizazioak ezarri dituzte, dena sailkatu nahian, bozgorailuz aldarrikaturiko “*Qui plus*” lehia antzua bultzatu dute; zinez intimoa eta jainkotiarra den *chakra* nagusi bat irainduz.

Oker dabilta!

Shaolindarrok, sexua harreman afektibo baten gailur bihurtu, hori baita erronka. Bikotekideen elkarrenganako magiak, kimikak, konplizitateak, ferekek, musuek, kiribilketek, hezetasunak, epeltasunak, erotismoak... maitasunak azken finean, bere fruitua eman dezan... Allelujah!

Hobe dugu bizitzaren argi-ilunez pazientziaz, kuriositatez, bakoitzak bere bidea urratuz, eta amiñi bat maltzurkiro gozatzen ikastea. Ez da argirik ilunik gabe (*Tamizaki*), ezta berehalakotasunean atsegirik (*Byung-chul Han*)”.

(“Nondik zatoz-sagarrak dakarzkik” usaina nabari dut nire erantzunean, baina tira...).



IÑAKI ODRIOZOLA

Elgoibar 1936 taldekoa

## Gure mendietan ahaztuak

tor hura lortzeko, beti gordetzen genuen hurbilean erraz lor zitekeen gailurren bat: Morkaiku edo Zirardamendi.

Nagusi egin gara, eta benetan diotsuet azken urte hauetan herriko mendiak erabat aldatu direla niretzat, eta erabat aldatu nautela. Zentzu berezia hartu dute, esanahiz asetu, ulertezin bezain ahazte-zineko gertakariz bete zaizkidalako.

Lehen, baso, landa, bidezidor eta paisaia ederrak ikusten nituen, lagunekin eta familian gozatzeko; izerdia atera, elkartasun giro politean zerbaite jan, elkarri adarra jo, irrifarre egin, gorputza nekatuz burua lasaitu...badakiguna.

Orain, ordea, inguru horietan orain dela ez asko gertatutakoaren ezagutzak, oroitzapenak azken batez, –zer dira ba 80 urte!– erabat hunkitzen nau, eta Aias-tiako San Migelgo ermitatik gora hasten naizenean, nahi gabe ere, euren bizia

herri honen askatasunagatik eman zuten irudia etortzen zait gogora... Belar-tondoko errebueltan badagoela norbait lurperatua; Belarretako ataritik gora, beste bat; Morkaikuko gurutze faxista atzean dudala, ikus dezaket Azkarateko mendatetik Upaitzarako bide zaharra: Juaristi baserritik hurbil eta Amestigainen lurperatuak daudela beste bi; Aurrez aurre, Muneta-Karakateko tontoretik behera ere ba omen dago beste norbait; eta ezker aldean, Zirardamendin, lubaki ezkutuen atzean, bi zulotan, beste lau edo bost.

Ahaztuak dira, desagertuak, inoiz euren senideen esku jarriak izan ez diren gorpu tirokatuak, historiarentzat existitzen ez direnak. Eta gu, euren alboan mendian gora, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Liburu eta telebistan existitzen ez dena, izan, ez delakoan. Oroitzea ere gure esku dago.

*“San Migelgo ermitatik gora hasten naizenean, nahi gabe ere, euren bizia herri honen askatasunagatik eman zutenen irudia etortzen zait gogora”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Euzko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus  
barren@elgoibarkoizarra.eus  
www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriki lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuittzak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Eduñe Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegui, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

EUSKARA  
elgoibar  
1936ELGOIBARKO  
UDALA

LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ▶ MAIATZAREN 7A

Badator parte hartzeko eguna. Maiatzaren 7an herri galdeketa egingo dugu Elgoibarren. Gure Esku Dago taldekook 2014an ekin genion ibilbide honi. Hasieratik, ondoko hiru printzipio hauen inguruan antolatuta gara: 1) Herri bat gara 2) Erabakitze eskubidea dugu 3) Herritarren garaia da. Herritarrok bultzatutako dinamika honetan aipatutako hiru printzipioekin bat egiten zuten guztiak lekua izatea nahi genuen.

Bide horretan nazio mailako zein herriz herriko ekitaldiak antolatu ditugu: 2014an, Durango eta Iruñea arteko giza katea; eta, 2015ean, Bilbon, Donostian, Iruñean, Gasteizen eta Baionan, hautestontzi erraldoiak eraiki genituen.

2016tik estatus politikoaren inguruko galdeketa antolatzen aritu gara. Guztira, herriko 30 laguneko lantaldea osatu genuen, eta galdeketarako bi galderak adostu genituen: nahi al duzu gaur egungo estatus politikoa aldatzea? Nahi al duzu euskal estatu inde-

pendentea? Eta 1.802 sinadura lortu ditugu herri galdeketa egiteko. Protokoloak eskatutakoa baino gehiago.

Ibilbide honen hurrengo geltokia maiatzaren 7a da, pentsatzen duguna esateko eguna da. 16 urtez gorako elgoibartar guztiok, orain arte dinamiketan modu batera edo bestera parte hartu duzuenok, babeserakutsi diguzuenok, baita orain arte zalantzan egon zaretenok ere, maiatzaren 7an parte hartzea animatzen zaituztegu. Denon iritziak entzun nahi ditugu, herritar guztiok daukagulako erabakitze eskubidea. Maiatzaren 7an garrantzitsuen parte hartzea delako. Parte hartu.

### Elgoibarko Gure Esku Dago

### ▶ ESKERRIK ASKO

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkizuegu Kilimon Trail mendi lasterketa handi egiten lagundu diguzuen guztioi. Hasteko, gure eskerrik beroena babesle eta laguntzaile izan zaituztegun guztioi: Mendaroko Udala, Danobat Group, Gorosabel, Ekonura, Sport

HG, RTS s.a., La Sportiva, Berria, Basquestay, Landa jatetxea, Txarriduna hotela, Iriondo Kirolak, Uztargi, Lagun Betikoak eta Txirristaka tabernek, Mauri harategia, Elkar autozerbitzua, Podocactiva, Arruabarrena, Kaiku, Powerade, Pelegrin, Aneto, InfiSport, S&P, eta Direna banaketak. Era berean, mila esker, egunean bertan zuen onena eman zenuten boluntario guztioi, zuek gabe hau ezinezkoa litzatekeelako. Eta bukatzeko, mila esker mendi lasterketen egutegi bete horretan gurea aukeratu duzuen kirolzaleoi. Zuek ematen diozue zentzua eta sona lasterketa honi, eta zuek ematen diguzue lanean jarraitzeko indarra. Datorren urtean ere gurekin izango zaituztegelakoan, agur bat guztioi.

### Mendaroko Txirindulari Elkarte eta Lizarpe Mendi Kluba

### VI. URTEURRENA

## Edurne Gabilondo Aizpitarte

*Zure begiek ene maitia  
badute biek dir-dir ez  
zeruko lore miresgarriak  
izarren pare zoragarriak.  
Maitasunez, etxekoek.*



VI. urteurrenako meza izango da, apirilaren 21ean, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



## Debabarreneko ekonomiari buruzko saioa egingo dute eguenean IMHn

**B**ARREN astekariak eta Sorailuzeko *Pil-pilean* aldizkariak *Ekonomia Gurean* izeneko saioa antolatu dute datorren eguenerako, Tokikomekin elkarlanean eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin. Debabarreneko ekonomiaz hitz egiteko jardunaldia izango da, eta gure bailarako ekonomia gertutik ezagutzen duten kideak izango dira hizlariak: Tokiko garapena eta ekonomian aditua den Orkestra, Lehiakortasunerako Euskal Institutuko Miren Estensoro; Asmaolako Fermin Lazkano eta Egile taldeko Josu Agirrezabala. Gaur egungo egoeraz eta etorkizuneko erronkei buruz hitz egingo dute, besteak beste. Mahai inguru formatuan izango da saioa. Elena Laka Topaguneako presidentek egingo ditu aurkezle lanak, eta hizlariak haren galderak erantzun beharko dituzte. Era berean, herritarrek protagonismo berezia izango



Miren Estensoro, Josu Agirrezabala eta Fermin Lazkano.

dute saioan, "herritarrek izango baitira ohorezko jasotzaileak". Ekonomia Gurean hitzaldian biltzen diren herritarrek gertutik ezagutu ahal izango dituzte ekonomia eta enpresa mundua, arlo horretan garrantzia handia izan duten eragileen eskutik. Zer gertatu den aztertuko dute, eta egoeraren

irakurketa egingo dute, bailarako errealitate batera egokituta.

Hizketaldia apirilaren 27an izango da, eguenean, IMHko areto nagusian, 10:00etatik 11:00etara. saioa grabatu egingo denez, Gipuzkoako telebista lokalatan ere zabalduko da.

### Jaiki Gazte Taldeak galdetegi bat prestatu du, gazteen bizipenak biltzeko

*Zenbateraino naiz libre? izenburupean, galdetegi bat prestatu du Elgoibarko Jaiki Gazte Taldeak, Elgoibarko gazteek genero harremanen, klaseen eta naziotasunaren inguruan dituzten bizipenak biltzeko. Errealitate eta pertzepzio desberdinak jasotzea da helburua, gero datu horiek aztertu eta interpretatzeko. Horretarako gazte elgoibartarrei inkesta horretan parte hartzeko deia egin diete. Bost minutuan erraz betetzeko moduko galdeketa prestatu dute, eta anonimoa da. Facebookeko orrialdean aurkituko duzue inkesta betetzeko lotura: [www.facebook.com/Jaiki](http://www.facebook.com/Jaiki)*

*Bestalde, hitzaldi bat antolatu dute apirilaren 28rako, Gazteok euskal estatuari BAI! izenburupean, eta gazteek independentziari baietz esateko dituzten arrazoen inguruan hitz egingo dute. 19:30ean izango da saioa Kultur Etxeko sotoan, eta hitzaldiaren ostean, 20:30 inguruan, argazkia aterako dute independentziaren alde.*

#### I. URTEURRENA

## Pilar Salaverria Gurruchaga

2016ko apirilaren 10ean hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilak 22, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana



## Mugikortasun iraunkorrerako plana berrituko du Elgoibarko Udalak



2000. urtetik indarrean dagoen mugikortasunerako plana urtea amaitu baino lehenago berritu nahi du Elgoibarko Udalak. Pertsonen bizi-kalitateari eusteko eta udalerria eta bere ingurunea bizileku egokia bihurtzeko ahaleginean, Mugikortasun Iraunkorrari buruzko Udal Plan berri bat eratuko du 2017. urtea amaitu baino lehen. Planaren erredakzioa burutzeko lizitazio iragarkia apirilaren 5ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Guztira, 50.000 euro (BEZa kanpo) bideratuko ditu Udalak planaren erredakziora, eta lehiaketa irabazten duen enpresak sei hilabeteko epea izango du lana egin eta entregatzeko. Proposamenak aurkezteko azken eguna maiatzaren 4a da.

Mugikortasun Planaren helburu orokorrak dira, besteak beste, mugikortasun arazoak identifikatzea, garraio publikoko sareek eskaintzen duten zerbitzuaren irisgarritasuna, estaldura eta zerbitzua hobetzea, ibilgailuentzat eta oinezkoentzat hiriko gune publikoaren zein zati izan behar den zehazteko irizpideak ezartzea eta apar-kalekuak berrantolatzea.

Elgoibarko Udalak beharrezkotzat jotzen du plana egiterako orduan, taldeak (komertzioak, elkarteak eta inplikaturako bestelako agenteak) eta administrazioak integratzea eta horien partaidetza sustatzea, bai informazioa biltzerakoan, bai plana osatzerakoan ere. Iosu Arraiz Hirigintza Zinegotziaren arabera, planak "izaera integrala" du: "Elgoibarko mugikortasunari buruzko aurretiazko diagnosis egiteaz gain, planak herriak duen potentzialtasuna aztertzeo aukera emango digu eta horretarako, prozesu parte hartzaile bat zabalduko da, elgoibartar orok bere iritzi eta ekarpenak egin ditzan". Besteak beste erakunde eta entitate batzuen, auzokideen elkarleen, Udaltzaingoaren eta talde berezien informazioa jasoko da, baita erabiltzaileena beraiena eta esanguratsutzat jotzen diren beste hiritar profil batzuen ere.

Hala, planaren koordinatzaile nagusiak eta Mugikortasun Iraunkorrerako Fororen koordinatzaileak, ardua izango duen zinegotziak emandako argibideak jarraituz, egokituz jotzen duten mekanismoa zehaztuko dute herriko mugikortasunaren bilakaeran inplikaturako dauden eragilerik gehienek zuzenean parte har dezaten (foroak, inkestak, kontsulta, etab.).

Mugikortasun iraunkorrerako planaren jarraipena Batzorde iraunkor baten bidez egingo da. Batzorde honek, aldiro, lanaren bilakaera aztertuko du.

## Txiki Egunean amaituko dira aurten sanbartolomeak

Abuztuaren 23tik 28ra ospatuko dira aurtengo San Bartolome jaiak, eta jaietako azken eguna Txiki Eguna izango da, abuztuaren 28a, hain zuzen ere. Elgoibarko Udaleko arduradunek zalantzak izan dituzte aurtengo sanbartolomeetako egutegia prestatzerakoan, baina azkenean jai egunak jarraian jartzea erabaki dute. Hortaz, 23an hasiko dira jaiak eguerdiko txupinazoarekin, eta hilaren 24a San Bartolome Eguna izango da, ohi legez. Hilaren 25a Txiki Eguna izan ohi da, egun hori asteburuan jausten ez bada behintzat. Kasu horietan astehenera atzeratzen da Txiki Eguna. Aurten hilaren 25a ostirala da, eta hor sortu zen lehenengo zalantza. Txiki Eguna bere horretan utzi, ala ostirala izanik Gazteen Eguna ospatzeko aprobetxatu. Bigarren aukera honen aldeko apustua egin du Udalak, beraz, hilaren 25a Gazteen Eguna izango da eta hilaren 28a, astelehena, Txiki Eguna. Bi izan dira erabaki horren alde egiteko arrazoi nagusiak: batetik, Gazteen Eguna ostiralean izaten dela, eta bestela, irailaren 1era atzeratu beharko litzatekeela. Bestalde, iraileko lehenengo asteburu horretan San Antolin jaiak ere ospatzen dira Arriaga auzoan, eta hori ere kontuan izan dute.





# “Lanaren erdia geratzen zait munduko maratoui ospetsuenak egiteko”

## ► MIGUEL ANGEL MONTES MARATOILARIA

Munduko sei maratoui garrantzitsuenek osatzen dute 'World Marathon Majors' nazioarteko txapelketa: New York, Boston, Chicago, Londres, Berlin eta Tokioko maratouiek. Migel Angel Montesek hiru egin ditu dagoeneko –New York, Chicago eta Tokio– eta falta zaizkion hirurak egiteko prestatzen ari da. Gaztetan atletismoan ibili ostean, 30 urte ingururekin laga zion antxitxika egiteari, enpresa munduan gero eta ardurua handiagoak zituelako. 50 urte bete zituenean berreskuratu zuen korrika egiteko ohitura.

- ASIER ORBEA -

### ◆ Nola bururatu zitzaizun munduko sei maratoui ospetsuenak korritzeko ideia?

Ez da egun batetik besterako burutazioa izan, prozesu bat baizik. Pentsa, etxekoei hitza emana nien ez nuela sekula maratouirik egingo. Duela bost urte, baina, maratoui bat egiteko gogoia nuela esan nuen etxean eta Donostiakoan parte hartu nahi nuela. Hala, etxekoen oniritzia jaso eta gero, entrenatu eta parte hartu nuen. Oso gustura aritu nintzen eta helmugara ailegatzen ari nintzela piztu zitzaidan beste maratoui bat egiteko gogoia. Hurrengo bi urteetan ere korritu nuen Donostiako maratouia.

### ◆ Eta txiki geratu zitzaizun Donostiako maratouia.

Etetik gertuen neukan maratouia delako egin nuen, eta gainera, gorabehera askorik gabeko ibilbidea duelako. Baina... hiru aldiz egin ostean, erronka berri bat behar nuen eta maratouirik ospetsuena egiteko gogoia piztu zitzaidan: New Yorkeko maratouia. Emaztearen baimena lortzeko, alaba eta bere mutil-laguna konbentzitu nituen maratouia nirekin egin zezaten. Hala, laurok joan ginen eta 2015eko azaroaren 1ean korritu genuen (azaroko lehen domekan egi-



ten da urtero). Entrenamenduetan metodikoa eta zorrotza naiz, eta ongi prestatu nuen. Urte osoan aritzen naiz korrika eta maratoia jokatu aurreko lau hilabeteetan entrenamendu programa zorrotza jarraitzen dut. Alaba eta bere mutil-laguna, aldiz, nahiko berandu hasi ziren entrenatzen, uda ostean. Entrenamendu intensiboa eginda joan ziren New Yorkera, azken bi hilabeteetan hiruzpalau maratoi erdi egin eta gero. Hiria ezagutzen nuen, aurrez behin baino gehiagotan izana naizelako. Hiri ederra da. Lasterketa egunean egun zoragarria egin zuen korrika egiteko eta dena irten zen primeran. Mundu guztiak egin nahi duen maratoia egin genuen, ospetsuena.

#### ◆ **Nolakoa da New Yorkeko maratoia?**

Ezaguna nuen hiria beste ikuspuntu batetik ezagutzeko aukera eman zidan maratoiak. Hiriko auzo esanguratsu guztietatik pasatzen da ibilbidea eta bide bazterrean dagoen jendeak orduak eta orduak ematen ditu antxitikari guztiak animatzen, hasi lehenetik eta azkenera arte. Asko igartzen eta eskertzen dira animo horiek. Kilometro batzuk nahiko gogorrek ditu, baina helmugara, Central Parkera, ailegatzea bezalakorik ez dago. Segurtasun neurriak ere harrigarriak dira. Horrenbeste polizia eta hainbeste helikoptero hegan ikusteak errespetu handia ematen du. Bostoneko maratoian egin zuten atentatuaren ostean, segurtasun neurriak handitu dituzte New Yorkeko maratoian.

#### ◆ **New Yorketik Chicagora egin zenuen.**

Bai. Lana dela-eta asko bidaiatzen dut munduan barrena (Cometel Groupen egiten du lan) eta Chicago da korrika egiteko ezagutzen dudan hiririk egokiena. Jende asko eta asko ibiltzen da Michigan lakuaren ertzean korrika. Neguan hotz handia egiten duen hiria den arren, eguraldia ez da oztopo han. Arropa bereziak jantzita irteten dira neguan, eta neu ere bai. Zoro bat izan beharrean bat gehiago zara han. Eta Chicagokoa World Marathon Majors txapelketako maratoia denez, 2016ko urriko bigarren domekan egin nuen.

#### ◆ **Nolako esperientzia izan zen Chicagoko maratoikoa?**

Maratoia bera baino gehiago Chicagora ailegatzea izan zen konplikatuena. Aurreko aste guztia Mexikon pasa behar nuen azoka batean, lan kontuengatik. Lana eta maratoia uztartzeko zehatz mehatz antolatu behar izan nuen bidaia guztia. Barixakuan amaitu zen azoka Queretaron (Mexiko) eta handik Mexiko Hirira joan ostean, Dallasera hartu nuen hegaldi bat, eta handik Chicagora beste bat. Zapatuan, 15:00etan, ailegatu nintzen. Dortsala jaso, pasta plater bat jan pizzeria batean eta lo egitera joan

## “2016an 3.030 kilometro egin nituen korrika”

nintzen. Azken asteetan desordutan entrenatzen aritu nintzen arren, maratoi oso-oso ona irten zitzaidan eta azken hiru edo lau kilometroetan egin nituen denborarik onenak, normalena alderantziz izatea denean.

#### ◆ **Jarraitzeko gogoa emango zizun Chicagoko maratoia horren ongi bukatu izanak?**

Adinean aurrera noa eta maratoi gehiago egin nahi baditut ez daukat astirik galtzeko. 2017an egin nahi nituen maratoiak antolatzeari eta prestatzeari ekin nion. Tokio eta Berlin aukeratu nituen. Tokioko maratoian eman nuen izena lehenik. Emaztea konbentzitu behar izan nuen, beste behin ere, eta nirekin etorrita herrialde exotiko bat ezagutzeko aukera izango zuela esan nion, bidaiatzea ere asko gustatzen zaigu eta. Emazteak gorroto du korrikalarion ingurunea. Beti gai berdinei buruz berbetan ari garela dio. Otsaileko azken domekan, joan den otsailaren 26an, egin nuen Tokioko maratoia, nire hirugarren 'major'-a. 2020an Tokion egingo diren Olinpiar Jokoetarako prestatzen ari dira Japonian eta zenbait berrikuntza probatu zituzten maratoian. Ibilbidearen alboetan, esaterako, medikuak eta poliziak jarri zituzten korrika, errelebo. Gainerakoan, antolakuntza aldetik-eta, ez nuen ezer apartekorik ikusi, ez behintzat deigarria iruditu zitzaidan ezer.

#### ◆ **Hiru maratoi entzutetsu egin dituzu eta badaukazu alderatzeko aukera. Zeinetara bueltatuko zinateke berriro?**

New York edo Chicagoko maratoietara. Ikusgarriena New Yorkekoa da. Tokiora turista moduan bai, baina maratoia korritzera ez nintzateke berriz joango.



Miguel Angel Montes etxeokokin New Yorken.

## “Korrika egiteak nire bizitza osatzen du, bizipoza ematen dit”

### ◆ Nola bizi dituzu maratoiak. Oraindik ez dizkidazu aipatu egin zenituen denborak?

Gaztetan 30 urte bete arte ibili nintzen saltaka. Adin horretan enpresa munduan ardurak izaten hasi nintzen, ordea, eta errazena egin nuen, korrika egiteari laga, denbora falta nuen aitzakiarekin. 2009an, baina, bi gauzak bat egin zuten. Batetik, 50 urte bete nituela; eta, bestetik, krisi ekonomiko oso gogorra jasaten hasi ginela. Urduri nengoen oso, eta ingurukoak ere urduri jartzen nituen. Aurrekoek gainera, asko lodituta nengoen. Orduan, laneko bidaietara eramaten nuen maletan korrika egiteko zapatilak sartzen hasi nintzen. Hasieran aurpegia gorri-gorri jartzen zitzaidan eta gogorra izan zen sasoi berreskuratzea, baina poliki-poliki lortu nuen eta korrika egiteak on egiten zidala ikusi nuen. Hobeto sentiarazten ninduen. Eta ez mentalki bakarrik, fisikoki ere inongo pastillarik hartu beharrik gabe ailegatu naiz 58 urte betetzera. Durangoko koadrilakoekin afariak egiten ditudanean fisikoki euretako asko baino hobeto nagoela ikusten dut. 92 kilo pisatzen nituen berriro korrika hasi nintzenean, eta 77 kiloren bueltan ibiltzen naiz orain. Eta aurreko guztiari gehitu behar zaio, ilusioa emango didan zerbaiten bilaketan nabilela uneoro, dela lanean zein bizitzan. Eta korrika egiteak nire bizitza osatzen du, bizipoza ematen dit.

### ◆ Maratoiak egiten ari zaren bitartean badago hiriak ikusteko aukerarik?

Lasterketetan? Disfrutatzen dugula denok esaten dugun gezurra dela uste dut; ez dator bat errealitatearekin. Une batzuetan ez zara konturatzen nondik pasatu zaren ere. Oso exigentea da maratoi bat. Une batzuetan zure inguruan doazen lasterkarien zapatilak ateratzen duten zarata da entzuten duzun gauza bakarra,

*Martin Fiz eta Miguel Angel Montes New Yorken 2015ean.*



*Miguel Angel Montes Tokioko maratoian aurtego otsailean.*

soinu horrek markatzen dizu jarraitu beharreko erritmoa eta pilotu automatikoa jarrita egiten da korrika une horietan, indar eta kontzentrazio guztia eman beharreko pausoetan jarritz.

### ◆ Zein da egingo duzun hurrengo maratoia?

Berlineko maratoia egin nahi nuen aurten, baina konpromiso bat sortu zait irailako azken domekarako eta hurrengo urterako laga beharko dut. Ameriketako Boston gelditzen zait, eta European, Berlinekoaz gainera Londresekoa. Lan erdiak geratzen zaizkit sei Majors-ak osatzeko.

### ◆ Elgoibarren zein leku dituzu korrikarako gustukoena?

Maratoiak prestatzeko entrenamendu saio luzeenak Andikano eta Maltzaga arteko bidegorrian egiten ditut. Bost kilometro dira, eta zazpi bider egiten dut 35 kilometroko saioak egiteko. Entrenatzeko leku aproposa dela uste dut, bidean dauden hiru aldapatxoak gogorrak diren arren mesede egiten didatelako. Maratoiak bi zati ditu, fisikoa eta mentala. Gaztea nintzenean denbora onak egin nituen Behobian, ordu bat eta 15 minutuan egindakoa naiz, baina ziur naiz ezin izango nukeela maratoi bat bukatu. Ez neukalako gaitasunik hiru orduan korrika ibiltzeko. Fisikoki egon zaitezke oso ondo prestatuta, baina 42 kilometroko proba bat bukatzeko mentalki egon behar duzu prestatuta. Uste dut horregatik direla maratoilari gehienak 35 urtetik gorakoak. Martin Fizek esaterako, 53 urterekin, munduko sei maratoi ospetsuak irabaztea du helburu, beteranoetan, M50 kategorian (50 urtetik gorakoak)

### ◆ Zenbat kilometro egiten dituzu korrika urte batean?

2016an 3.030 kilometro egin nituen. Gaur egungo ordulari moderno hauetako bat dut, hainbat datu eta eginiko ibilbide guztiak GPSaren bidez jasotzen dituztenak. Teknologia lagungarria dela uste dut, motibaziorako tresna bat gehiago izan daiteke. Duela urtebete sasoi hobeagoan ala txarragoan zauden erakusten dizu. Nondik nora ibili zaren gogoratzeko ere balio du. Eta baita astean edo urtean egindako kilometroak zenbatzeko ere.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112



**E**gurrezko oholak utzi dituzte trenbidean, Artetxe inguruan, eta oso usain txarra botatzen dute: "Artetxe inguruko trenbide zatian egurrezko oholak utzi dituzte, eta galipot usaina botatzen dute. Gure etxe parean daude, eta leihoak zabalik uzten ditugun egunetan etxeak oso usain txarra hartzen du". Iosu Arraiz Hirigintza Saileko zinegotziak jakinarazi du oraindik ez dakitela noiz kenduko dituzten, baina behin-behineko erabakia izan dela hor lagatzea.



**P**edro Mugurutza etorbideko OTA-TAO gunean aparkalekuak gutxitu dituzte: "Babes Ofizialeko etxebizitzaren obra dela eta, zebra-bidea lekuz aldatu dute, eta horrekin hainbat aparkaleku kendu dituzte. Hori ulertzekoa da, obra egiteko beharrezkoa delako. Baina orain, bi lorontzi handi jarri dituzte zebra-bidearen ondoko aparkalekuan. Herrian gero eta leku gutxiago dago aparkatzeko, eta aparkaleku asko denboran mugatuak dira. Orain, obregatik ere aparkalekuak murrizten dituzte. Non aparkatu behar dugu?". Iosu Arraiz hirigintza zinegotziak azaldu duenez, lorontziak beharrezkoak dira, autoek hor aparkatzen badute oinezkoentzako ikuspena murrizten delako. Obrak amaitu ostean dena lehen bezala jarriko dutela adierazi du.



**N**ondik gurutzatu behar dugu Maalako bidegurutzean?: "San Frantzisko kaletik zoazela zuzen jarraituz gero, harrizko bidegurutze bat dago eta jende askok hortik gurutzatzen du errepidea. Baina toki horretan ez dago zebra-biderik. Auto gidariak askotan ez dira geratzen zebra-biderik ez dagoelako, baina nik ulertuta daukat harrizko lurzoru horrek zebra-bide funtzionamendua duela. Hala al da?". Iosu Arraiz hirigintza zinegotziak esan du ezetz, lurzoru harrizkoa izan arren, gune horretan oinezkoek ez daukatela lehentasunik eta zebra-bideetatik gurutzatu behar dutela. Auto gidariak dauka lehentasuna, eta berez, ez dago gelditzera derrigortuta.



## Karmele Larrañaga Aldazabal

2017ko apirilaren 15ean hil zen, 82 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



# “Euskara normalizatzen ezin gara mugatu gauza solteak egitera”



## Enetz Ezenarro EUSKALTZALEA ETA EHBILDU-KO KIDEA

Hiru bat hilabete dira Mendaro UEMAn, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean, sartu zela. Udal batzarrak ahobatez onartu zuen UEMAn sartzea, kezkatuta zeudelako azken urteotan euskararen ezagutzan eta erabileran behera egiten ari zelako Mendaron. Borja Rodriguez (EHBildu) eta Maite Apellaniz (EAJ) zinegotziak dira Mendaroko Udaleko ordezkariak UEMAn. Hauekin batera Enetz Ezenarro da gaiari tiraka dabilenetakoa.

- AINARA ARGOITIA -

### ◆ Noiz eta zergatik erabaki zuen Mendaroko Udalak UEMAn sartzea?

Aurreko legegintzaldian Udalak deituta Mendaron sortu zen Euskara taldean dauka abiapuntua. Euskararen egoeraz kezkatuta geunden hainbat lagun batu ginen orduan taldera, eta egia esan, nik neuk ezin izan nuen orduan gauza handirik egin, baina ibili ginen aztertzen zer eta nola egin beharko genukeen Mendaro euskaldunago egiteko. Euskara Plana eta halako kontuak aitatu genituen, eta ibili ginen hari forma eman nahian. Denbora eman zuten taldekideek horretan, baina azkenean, ez zuen ezerk aurrera egin. Gero, 2015eko udal hauteskundeetako EHBilduren herri programa lantzeko sortu ziren lan-taldeen artean bazen bat euska-

raren ingurukoa. Han bildu ginenok ikusi genuen gure herrian euskararen erabilera normalizatzea helburu izanik diagnostiko batetan oinarritutako planifikazio integral batetik abiatu beharra geneukala; ezin girela, besterik gabe, gauza solte batzuk egitera mugatu. UEMAn urteak daramatzate ikuspegi integral hori lantzen, udalerri bakoitzaren egoeraren diagnostikotik abiatuta eraginkorrenak izan daitezkeen neurriak asmatzen eta martxan jartzen, euskararen normalizazio ahaleginen abangoardian. Gainera, UEMAn badira soziologikoki Mendaroren oso antzekoak izan daitezkeen herriak. Horien esperientzia eta eskarmentua geure egin eta geure bidea egiten hasteko UEMAn sartzea aukera ona izan zitekeela ikusi genuen.

### ◆ Beraz, programan sartu zenuten derrigorra izan zedin euskararen gaiari behingoz serio heltzea.

Bai, UEMAn sartzeak diru bat jartzea eskatzen du, eta ikusten genuen behin gaia programan sartuta, eta zer esanik ez, hauteskundeak irabaziz gero, pausoak emateko bidea libre geratuko litzatekeela. EAJk ere babestu du gainera Mendaro UEMAn sartzea. Aukera ona da gauzak modu serio batean egiten hasteko.

### ◆ Zer da UEMA? Zein da bere egitekoa?

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea da, eta euskararen normalizazioan motore papera hartzea du helburu nagusia; euskararen aldeko hizkuntza politikak sortu eta haietan eragitea. Bi lan-lerro dauzka: batetik, barrura begirakoa, Udaleko fun-

*“UEMAk esaten duena da euskararen gaiak transbertsala izan behar duela”*

tzionamendua erabat euskalduntzea, eta bestetik, kanpora begirakoa, kalean euskararentzako esparruak sortzea, gehitzea eta daudenak hobetzea. Sortu, lehenengorako sortu zuten berez, baina konturatu ziren Udalak euskalduntzen ari ziren hein berean eralduntzen ari zirela kaleak, eta orain, bigarren lan-lerro horrek garrantzia handiagoa dauka kasu gehienetan.

#### ♦ Zertan lagunduko du Mendaro UEMAn sartzeak?

Laguntza handia izan daiteke. Hainbat alor lantzen ditu. Adibidez, UEMAk merkataritza zerbitzua dauka eta horren barruan erdaratik euskararako itzulpenak eta euskara zuzenketak eskaintzen dizkie merkatariei. Era berean, gai horri lotuta badauka beste kontu bat interesgarria dena: profesional euskaldunen gida. Herrian zerbitzua euskaraz ematen duten profesionalei gida horretan sartzeko aukera ere eskaintzen die.

Bestelako kanpainak ere egin izan dituzte: adibidez, euskal abizenak euskal grafiara moldatzeko kanpaina edota errenta aitortpena euskaraz egin ahal izatekoa. Oso interesgarria da baita ere ELE Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko tresna. Eta zertarako balio duen? Politika publikoetan, ezertan hasi aurretik, ingurumen inpaktu neurtzen den moduan, tresna horrek hirigintza plan batek edo beste edozein esku-hartzek eremu jakin bateko hizkuntzan zelako eragina izan dezakeen neurtzen du.

Eta gero baditu beste tresna edo baliabide batzuk ere erabilgarriak izan daitezkeenak Mendaron. Adibidez, herrira etorri berri direnentzako hiztegiak ere prestatzen ditu, etorri berri diren horiei euren hizkuntzek duten garrantzia aitortu, eta era berean, euskaraz egiteko lehen erremintak eskura jartzeko. Herri bakoitzaren beharren arabera, kolektibo ezberdinetako tailer zuzenduak, hitzaldiak, formazio-saioak eta hizkuntza-proiektuak ere antolatzen ditu, eta, jakina, UEMAk herriak euskararen arnasmune diren heinean, saiatzen da haiek bizirik eta ahalik eta egoera onean mantentzen. Beraz, labur esanda,

euskaraz bizitzeko dinamikak sortu eta erremintak ematen ditu UEMAn sartzeak.

#### ♦ Mendaroko Udalarekin daukagun eta izan dugun harremana %100ean (izan) da euskalduna, baina zein da zuk egiten duzun diagnostiko orokorra?

Bai, Mendaroko Udaleko langileak euskaldunak dira, eta euskal hiztunak izateaz gain, esango nuke, asko, euskaltzaleak ere badirela, beraz, horrek ez gintuen gehiegi kezkatzen. Kalean ikusten genuenak kezkatzen gintuen gehiago. Gu txikiak ginenean ere erdara asko erabiltzen zen Mendaron. Jakin, gehienek jakingo zuten euskaraz, agian, baina, batez ere, gazte jendeak-eta, euskaraz jakin arren, erdararako joera handia zeukan. Agian, urteren batzuk egongo ziren 80ko hamarkada amaieran, eskolatik-eta belaunaldi berriak erabat euskalduntzea lortu zena. Baina, batez ere, 90eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, etxebizitza berri asko eraiki zituzten Mendaron, eta inguruko herrietatik jende asko etorri zen. Harrez gero, Mendaroren populazioak asko egin du gora, eta egia da baita ere, euskara dakiten mendararren proportzioak nabarmen egin duela behera. Gaur egun, gazteen artean bakarrik ez, umeen artean ere erdara asko entzuten da kalean, oso umetatik. Euskararen arnasmune izaera galtzen ari da Mendaro.

#### ♦ Epe motzean zer da herritarrek igarriko duena?

UEMAko teknikariek bilerak-eta izan ditugu beren lanaren nondik norakoak hobeto ezagutzeko. Zenbait ekimen txiki, bai Udalaren funtzionamenduari lotu-

takoak bai herrira begirakoak, martxan jarrita daude jadanik, nahiz eta seguruenara jendeari horien inguruko berri gutxi iritsi, oraindik. Bestetik, gure herriak gaur bizi duen egoeraren diagnostiko bat egiteki abiatu nahi izan da, hau eskuetan izanik, eman beharreko urratsak planifikatzeko. Fase horretan gaude oraindik. Hasiara guztiak izaten dira neketsuak, baina espero dezagun, luze gabe dinamika eraginkorrak martxan jartzeko gai izatea.

#### ♦ Euskara hutsean funtzionatu nahi dutela erakusten dute UEMAk udalerriek. Politika “aurrerakoak” sustatzen dituela dio UEMAk, elebitasun politikak ez dielako erantzuten bere herrietako errealitate soziolinguistikoari.

Bai. Argi dago bi hizkuntzak ez dadelako maila berean errekonozimenduari, prestigioari eta erabilerari dagokionean. Ezin ditugu maila berean baleude bezala tratatu! Gizarte bilingueak diglosikoak dira gehienetan. Beti dago hizkuntza bat bestea menperatzen duena. Euskararekin beti ibili gara kontu handiz, handiegiz, konplexu handiekin, bestea haserretu ez dadin. Diskriminazio positiboa deitzen den hori erabiltzearen aldekoa naiz ni. Euskarak aurrera egingo badu erraztasunak eman behar zaizkio esparru guztietan. Gure hizkuntza da. Inork ez du zainduko guk zaintzen ez badugu. UEMAk, esate baterako, administrazioan euskarak gai transbertsal bat izan behar duela defendatzen du. Hau da, lantzen den gaia edozein delarik ere, lantzen duen saila edozein delarik ere, beti agertu behar dela euskararen kontua.

#### ♦ Lehentasuna non ikusten duzu?

Diagnostiko on bat egitea garrantzitsua da. Fase horretan gaude. Edozein kasutan, transmisioaren gaia funtsezkoa da. Eta bigarren bat aipatzekotan erabilerarena aipatuko nuke. Zergatik jotzen dute haur eta gazteek erdarara? Zelan eragin genezake ohitura horietan? Eta gauza bera edadekoekin. Euskaraz dakite, baina ez dute egiten. Pentsatu arazi egin behar diegu. UEMAk lagunduko digu horretan.

# Jose Inazio Sarasua hil zen hilaren 11n

**1985. urtetik 2000. urtera Elgoibarko Haritz Euskal Dantzari taldeko zuzendaria izan zen, eta arrasto sakona utzi zuen kulturgingintzan**

Elgun gutxiren buruan, beste buru bat, beste "langile nekazekin bat", galdu du Elgoibarko kulturgingintzak: Jose Inazio Sarasua (Elgoibar, 1956). Apirilaren 11n hil zen Sarasua, 60 urte zituela, eta hutsune handia utzi du herriko kulturgingintzan. Hala jaso zuten Haritz Euskal Dantzari taldeko lagunek ere *dantzan.eus* webgunean. "Umezurtz geratu gara", zioen Sarasuaren heriotzaren berri emateko albistearen lekeroburuak. "Gure dantza taldeko zuzendaria, motor, buru, akuilu, langile nekazekin, txistulari, gidari eta laguntzaile ordezkazina hil da", irakur zitekeen albistean. 1985. urtetik 2000. urtera, Elgoibarko Haritz Euskal Dantzari taldeko zuzendaria izan zen, eta dantzari eta txistuari lotuta eman zuten bizi oso bat, herriko kulturgingintzan arrasto sakona utziz.

Oso ume zela hasi zen Sarasua dantzan, Elgoibarko Izarran. Musikarako zaletasuna, berriz, etxetik zetorkion. Bere anaia Jesus Mari ere musikari aritu da Elgoibarko Txistulari bandan, eta gaztetan, baita Mausitxa txaranga ere, Jose Inazio bera bezalaxe. Giro horretan hasi zen Jose Inazio. Bizi zuen musika, eta batez ere, txistua. Txistulari gisa, miresten zituen Ansolatarrak; miresten zuen haien teknika eta dotoretzia, eta haien eredia jarraitu zuen berak beti, gertukoaren esanetan. 1985ean hartu zuen Haritz dantzari taldeko zuzenda-

ritza berak, eta haren agintaldian nabarmen hazi zen taldea. "Lan sistematikoa" hasi zuen. "Lurdes Odriozolarekin elkarlanean dantza taldea lan diziplina zehatz eta teknikoan barneratu zen (dantzan.eus)". Juan Antonio Urbeltz eta Donostiako Argia dantzari taldearen babesean hainbat dantza eta erreperとりotan sakontzeko aukera izan zuten, eta 1988tik aurrera, Haritzeko dantzari eta musikariak Argiak prestatzen zituen ikuskizunetan parte hartzen

hasi ziren. Elkarlana bitlatu zuen beti beste dantzari talde batzuekin, Galdakaoko Andra Marirekin eta Portugaleteko Elai Alairekin besteak beste, espezializaziorako bidea ere zabaldu zuen -Gipuzkoako dantzetan berezitu zen taldea- eta Nazioarteko Folklore Jaialdia antolatzeari ere bere agintaldian ekin zioten. Ekitaldi entzutetsuetan parte hartu zuen eta baita antolatu ere

bai, baina lan xumeagoak alboratu edo ahaztu gabe. Eza-gutu zutenek diote San Bartolome eguneko aureskua zuela urteko emanaldirik kuttunena. Aipatzekoa da, era berean, Errosarioko ezpata-dantza berreskuratzeko egin zuen ahalegina. Eta eskertu zioten dantzari eta txistulariek joan zen urteko ezpata-dantzan.



*'Umezurtz geratu gara' zioten Haritz Euskal Dantzari taldekoek idatzi batean*

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

RPS 271/12

**ainhoa**  
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar  
943 531 953  
669 565 745

**aldaz**  
hortz klinikak

RPS233/13  
Tel.: 943 366 377  
San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

**fisio&más**  
Fisioterapia aurreratua eta  
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13  
943 740 191 / 667 933 628  
www.fisio-mas.com

RPS 122/19

federópticos

**ikus**

RPS 65/07  
San Bartolome, 10  
Tel.: 943 743 734

## 'El dúo de la Africana' zartzuela eskainiko dute gaur Elgoibarko Herriko Antzokian

Sasibil elkarte lirikoak *El dúo de la Africana* zartzuela eskainiko du Elgoibarko Herriko Antzokian, gaur hilak 21 (20:30). *El dúo de la Africana* zartzuela klasiko bat da, 120 urte badirelako estreinatu zutenetik. 1893an eskaini zuten aurrenekoz Madrilgo Apolo antzokian.

Opera konpainia xume batean gertatzen den maitasun istorio baten ingurukoa da zartzuela. Konpainia horretako kideak Giacomo Meyerbeerren *L'Africaine* kantua entsegatzen ari dira. Konpainiaren jabea, Querubini, gizon handinahi eta zuhurra da, eta ahalik eta irabazi handiena ateratzen saiatzen da, taldekideen kontura. Taldeko tenorea, berriz, familia aberats bateko gizon gaztea da, etxetik ihes egindako gaztea, Querubiniaren emazteaz seko maiteminduko dena. Querubini enpresa gizonak igarriko du, eta baita tenore gaztearekin liluratuta dagoen haren alabak ere, eta eszena komikoak gertatuko dira entsegutan, batez ere entsegura



etxetik ihes egindako gaztearen ama bistaratzen denean.

120 minutuko iraupena du zartzuelak eta sarrerak hamabost eurotan salduko dituzte gaur Herriko Antzokiko lehiatilan (gazte-entza 8 euroan).

### Sanbartolomeetarako ekarpen eskea

Elgoibarko Udalak jakinarazi du zalalik dagoela San Bartolome jaien egitaraua osatzeko ekarpenak egiteko epea. Interesatuak apirilaren 30era arte egin ahal izango dituzte ekarpenak, Kultura Sailean. Bi aukera daude horretarako: Kultura Saileko langileengana joanda (Kultur Etxean dago Kultura Saila. Kalebarren plaza 3-1. ezkerre) edo Internet bidez, [kultura@elgoibar.eus](mailto:kultura@elgoibar.eus) posta elektronikora idatziz. Informazio edo argibide gehiago behar izanez gero, deitu 943 74 2 158 telefono zenbakira.

### Jon Gurrutxaga eta Keu Agirretxea, biran

Jon Gurrutxagak eta Keu Agirretxeak kanta bat sortu dute elkarrekin, eta atzo hasi zuten bira bikote formatuan Euskal Herrian zehar. Emanaldiotan aurkeztuko dute elkarrekin sortu berri duten *Izanak* kanta ere ([www.badok.eus](http://www.badok.eus) webgunean entzun dezakezue). Biran zehar, musikari bakoitzak bakarka joko ditu hainbat abesti eta ondoren taula gainean batuko dira, bata bestearen zenbait kanta ahotsez edota gitarraz janzteko. Gaur, Bilboko Biba! gunean joko dute, eta hurrengo, Larrabetzuko Hori Bai gazte-txean, hilaren 23an.

### Jasone Osoro El Corte Inglesen

Jasone Osoro idazle elgoibartarra Eibarren izango da gaur arratsaldean *12etan bermuta* nobela sinatzen. El Corte Ingles merkataritza guneko hirugarren solairuan egongo da liburuak sinatzen, euskal literatura guneko berrian, 18:00etatik aurrera.

2015. urtean kaleratu zuen nobela hau Osorok, Elkar argitaletxearekin. Hain justu ere, Ondarroako Udalak eta Elkar argitaletxeak XVI. Agustín Zubikarai beka irabazi ondoren ondu zuen *12etan bermuta* bere azken lan hori.

gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

**leku eder**  
hortz klinika  
RPS 171/12  
Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre Enparantza, 5  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 530 053

**Mari Jose Ruiz Porres**  
Doktorea  
GINEKOLOGOA  
R.P.S. 82/15  
Madina Radiologia  
Toribio Etxeberria 4, I - Eibar  
Tel.: 943 202 857  
[mj.ruizporres@gmail.com](mailto:mj.ruizporres@gmail.com)

RPS 183/12  
**Uzuri**  
optika audio  
Elgoibar  
Tel.: 943 740 359  
Deba  
Tel.: 943 192 192

**NATUR HOUSE**  
Ainara Iriondo Ansola  
GIZA ELKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA  
Teribio Etxeberria, 22  
Eibar  
Tel. 943 108 020  
Mug. 677 551 850

## Lehen mailara iritsi diren jokalariak omenduko ditu C.D. Elgoibarrek maiatzaren 6an

Lehen mailan jokatzen iritsi diren jokalariak (Elgoibarkoak eta C.D. Elgoibarren jokaturakoak) eta atletismoan senior mailako Espainiako Txapelketetan dominak lortu zituzten atletak omenduko ditu C.D. Elgoibarrek urteurreneko ekintzen barruan. Izan ere, futbolaz gain, C.D. Elgoibarrek beste sail batzuk ere izan ditu bere historian, tartean atletismoa. Aipatzekoa da, besteak beste, C.D. Elgoibarrek Juan Muguerzaren Oroimezko Krosa erakundea sortu zuela 1943. urtean. Klubaren koloreak jantzi zituzten atleten artean hiru iritsi ziren nazioartean lehiatzera: Juan Muguerza, Inazio Izagirre eta Felix Erauzkin.

Maiatzaren 6an izango da omenaldia, eta horretarako hainbat ekintza prestatu dituzte: C.D. Elgoibar eta Real Sociedad taldeetako gizonetako betera-



noen arteko partidarekin hasiko dute eguna. Mintxetako futbol zelaian jokatuko dute 11:30etik aurrera. Ordu-erdiko bi zati izango ditu norgehiagokak, eta atsendaldian omenduko dituzte protagonista guztiak. Partidaren ostean herri bazkaria egingo dute C.D. Elgoibarko jokalaria, entrenatzaile, zuzendaritza taldeetako kide ohi, bazkide eta zaletuek. 15:00etan izango da, Maalako parkean. C.D. Elgoibarren mendeurrena antolatzen ari den

batzordeak eskerrak eman dizkio Morcaiko mendi taldeari, maiatzaren 6rako antolatu duten orientazio raideko parte hartzaileei eman beharreko bazkaria Maalan egitea pentsatzen zutelako, eta leku hori C.D. Elgoibarri uztea erabaki dute-lako. Maiatzaren 1a izango da bazkari-tarako txartelak eskuratzeko azken eguna. Interesatuek Ibai-ondo, Kaia eta Jai-Alai tabernetan erosi ditzakete txartelak, 30 euroan.

## Elgoibarren jokatuko da Espainiako eskubaloi txapelketako fasea, asteburuan

Asteburu honetan, apirilaren 21etik 23ra, Elgoibarko SANLO Eskubaloi Kirol Taldeak antolatuta, Espainiako Eskubaloi Txapelketako Jubenil Nesken Lauko Finalerako bat jokatuko da Olaizaga kiroldegian, eta Sanloko Tecnifuelle taldeak parte hartuko du. Emancipa Perera (Kantabria), Kanet Calasancio (Errioxa) eta H. Sant Quirce (Katalunia) taldeak izango dira elgoibartarren aurkariak. Hauek dira ordutegiak:



Apirilak 21, ostirala, OLAIZAGA Kiroldegian:

- 17:30 SANT QUIRZE - PEREDA
- 19:30 TECNIFUELLE - CALASANCIO

Apirilak 22, larunbata, OLAIZAGA Kiroldegian:

- 16:00 SANT QUIRZE - CALASANCIO
- 17:45 PEREDA - TECNIFUELLE

Apirilak 23, igandea, OLAIZAGA Kiroldegian:

- 10:00 CALASANCIO - PEREDA
- 11:45 TECNIFUELLE - SANT QUIRZE
- Ondoren, Sari Banaketa

## Tenis eta padel txapelketak antolatu ditu 40-15 elkarteak

40-15 elkarteak tenis eta padel txapelketak antolatu du, Kirol Patronatuaren laguntzaz. Maiatzaren 2an hasiko dira txapelketak, eta 14 urtetik gorako edonork parte hartu ahal izango du. Padel txapelketa binaka jokatuko da, eta tenisekoa aldiz, bakarka. Txapelketak bi fasetan jokatuko dira: Lehen fasea ligaxka fasea izango da, eta partaideek gutxienez hiru edo lau partida jokatuzko aukera izango dute. Ondoren, kanporaketa fasea jokatuko dute sailkapen onena lortu dutenek. Padel txapelketan parte hartzeko, 20 euro ordaindu beharko ditu bikote bakoitzak, eta teniseko txapelketan parte hartzeko, berriz, 15 euro pertsona bakoitzak. Izen emateko azkeneko eguna maiatzaren 1a izango da. Interesatuek telefono hauetara deitu dezakete: Padel txapelketa: 687421602 (Gorka) edo 670 66 57 97 (Javi) / Tenis txapelketa: 696577872 (Luis) edo 670 66 57 97 (Javi).




## Julen Larruzeak eta Maite Maiorak irabazi dute Kilimon Trail lasterketa



**M**aite Maiora (Mendaro, 1982) eta Julen Larruzea (Larrabetzu, 1982) gailendu ziren Mendaron jokatu zen zazpigarren Kilimon Trail mendi lasterketan, eta errekorrak ondu zituzten gainera. Bi orduz azpitik behar izan zuten Larruzeak ibilbidea osatzeko: 1:56:26. Denbora horrekin minutu batean ondu zuen, gainera, Walter Becerrak iaz ezarri zuen errekorra. Didier Zago izan zen helmugaratzen bigarrena, 1.57:03ko denborarekin, irabazlearengandik 37 segundora; eta, Mario Olmedo sailkatu zen hirugarren, 2:02:08ko denborarekin. Eibarren bizi den Ander Barrenetxea elgoibartarrak egin zuen laugarren (02:02:36). Emakumezkoetan ere errekor berria ezarri zuen Maite Maiorak, Virginia Perezek iaz ezarritakoa 20 minutuan onduta. Sheila Aviles izan zen bigarrena (2:21:17) eta Marta Antoñana sailkatu zen hirugarren (2:29:04). Antolatzaileek Maite Maiora omendu zuten izan dituen lorpen guztiengatik, eta Kilimon Trailen parte hartu duen guztietan, -sei bider- irabazi duelako etxeko proba. Lasterketa hasieran lore sorta eskaini zioten, eta bukaeran, podiumeko ekitaldian, herritarren eta gainerako parte-hartzaileen merezitako txalo zaparrada jaso zuen korrikalari mendaroarrak. 225 lasterkari abiatu ziren Herriko Enparantzatik eta 203k bukatu zuten 23 kilometroko lasterketa. Argazki gehiago: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)

## Zartako arkulariak nagusi, Ordiziako Txapelketan

Gipuzkoako 3D Ligako bigarren jardunaldia jokatu zuten apirilaren 9an Ordizian, eta Elgoibarko Zarta arkulari taldeko kideek erakustaldia eskaini zuten arku instintiboen modalitatean: Jose Luis Garcia irabazi zuen proba, Javier Varonak bigarren egin zuen, eta laugarren postuan sailkatu zen Hugo Sierra. Ordiziako Arku Tiraketa txapelketa Gipuzkoako eta Euskadiko 3D ligetarako puntuagarria zen. Lau probek osatzen dute Gipuzkoako txapelketa eta bi jardunaldi jokatu eta gero Zarta taldeko kide Jose Luis Garcia Fernandez da sailkapen nagusiko liderra, 26 punturekin. Zartako Javier Varona eta



Hugo Sierra ere lehen hamar postuetan sailkatuta daude, bosgarren eta zortzigarren, hurrenez hurren.

## Emaitzak

### FUTBOLA

Hernani 4 – Elgoibar 0 (Haundi)

Elgoibar 1 – Antigua Luberi 2 (Erreg.)

Eibar 2 – Elgoibar 3 (Ohorezko jub.)

Elgoibar 0 – Orioko 0 (Ohorezko kad.)

Elgoibar 2 – Zestoa 1 (Inf.)

Kostkas 7 – Elgoibar 0 (Inf. Txiki)

Arrasate 3 – Elgoibar 1 (Aleb.)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 3 – Zierbana 5 (Naz. B)

### ESKUBALOA

Lauko Elg. 31 – Ereintza 25 (Sen. nes.)

Egia 30 – Alkorta Elg. 24 (Sen. mut.)

Haritza Eibar 23 – Salento Elg. 18 (Sen.nesk.)

Aiala Zarautz 29 – Astigarraga Elg. 27 (Kad. nesk.)

Urkunde Elg. 24 – Urduliz 23 (Kad. mut.)

Murgil Elg. 29 – Pulpo 22 (Inf. mut.)

## Pilar Arriola bigarren, Izabako Ermiten Gau Krosean

Apirilaren 15ean jokatu zuten Izabako Ermiten Gau Krosa, eta Pilar Arriola korrikalari elgoibartarrak bigarren egin zuen, emakumezkoetan. Bigarren aldiz jokatu da aurten krosa, eta gero eta oihartzun handiagoa hartzen ari da Euskal Herriko lasterketen egutegian. Sei kilometroko lasterketa izan zen.



**LANA.....**

**Eskaerak**

Pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo interna moduan.  
☎ 602 193 095

Neska gaztea haurrak zaintzeko eta etxeko lanetan laguntzeko prest. Esperientzia daukat. Gizarte Hezkuntzan titulua eta EGA. ☎ 688 639 371

Nagusiak zaintzeko prest nago, egun osoz edo orduka. Garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 632 564 679

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago, egun osoz edo orduka.  
☎ 634 209 087

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. ☎ 631 613 245

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Asteburuetan edo interna moduan ere bai. Esperientzia daukat.  
☎ 631 562 461

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. ☎ 648 039 187

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Asteburuetan ere bai. Ordegi malgua. ☎ 632 776 905

Adinekoak zaintzeko eta gabiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 653 178 376

Adinekoak zainduko nituzke.  
☎ 632 061 103

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. ☎ 632 436 462

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo zerbitzari lanetarako prest nago.  
☎ 642 424 173

Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko, banaketa lanak egiteko, sukalde laguntzaile lanetarako... Edozein lan egingo nuke.  
☎ 650 029 176

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. ☎ 632 951 901

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. ☎ 632 983 250

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia handia daukat.  
☎ 635 005 536

Garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia eta erreferentzia onak ditut.  
☎ 688 712 075

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago.  
☎ 632 850 715

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago.  
☎ 612 493 242

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago.  
☎ 612 493 242

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago.  
☎ 662 430 951

Elkarrekin edo portalak garbitzeko prest nago. Euskalduna naiz.  
☎ 617 571 210

Adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest nago. Interna edo orduka. ☎ 634 209 087

Adinekoak zaintzeko edo zerbitzari lanetarako prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 616 085 126

Zapatu eta domeketan adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 626 435 491 (Idoia)

Kimikan graduatuak eskola partikularrik ematen ditu.  
☎ 678 801 052

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 633 072 144

Lan bila nabil. Lorezain, obrako peoi, eraikuntza lanetan, altzariak berritzen, fruta dendan... Edozer egiteko prest nago. Pintorea naiz, bigarren mailako titulu ofiziala daukat.  
☎ 631 31 68 04

**ETXEBIZITZAK.....**

**Alokairua**

Pisu bila nabil. Mendaron, Soraluzen edo Elgoibarren hartuko nuke alokairuan. ☎ 626 292 587

**LOKALAK.....**

50 metro koadroko lokala alokatu edo saltzen dut, Basarten.  
☎ 669 245 520

Taberna alokatzen da Elgoibar erdigunean. Terraza handia dauka.  
☎ 656 724 401

Garaje marraduna alokatzen dut Pista Beltzean.  
☎ 609 951 243

**OSPAKIZUNAK.....**

53ko kintoen bazkaria, apirilaren 29an. 12:30ean meza, Maalan hildako kintoen omenez. 14:30ean bazkaria Ibai Ondo jatetxean. Interesatuak apirilaren 23rako eman behar dute izena Castrillejo estankoa.  
☎ 686 886 963 (Carlos)

**BESTELAKOAK.....**

Karakate bidean giltzarroporik gabe baino loturik zeuden hiru giltz galdu ditut. ☎ 615 781 629



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos



**ROSA Mª PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Goiko etxetik ura sartu zaigu eta sabaian orbanak agertu zaizkigu. Egunetan ari gara goiko etxebizitzako errentariaren atzetik, urak nondik ihes egin duen ikusteko haren etxera sartu beharra daukalako iturginak. Baina egunak joan dira, eta oraindik ez dugu lortu, eta jakina, kalteak gero eta handiagoak dira.**

Etxe batean bizi denak jakin behar du mugakide dela beste batzuekin, eta beraz, bizilagunekiko baduela harreman bat; izan daiteke batzuetan kalteak eta beste batzuetan kaltea eragiten duena.

Errendamentuen inguruko arautegian jasota daude errentamendu-kontratuan zehaztutako betebeharrak ez betetzeagatik errentariari berari dagozkion erantzukizunak: etxe barruan jarduera gogaikarri, osasungaitz edo arriskutsuak egiteari lotutakoak edo errentariak berak nahita edo nahi gabe eragindako nahasmenduak.

Errentariak kontratuan jasotakoa bete behar du, eta beraz, han zehaztutako erabilera eman behar dio etxebizitza horri. Kontratuan jasotakoa bete ez badu eta horren jakitun baldin bada, gerta dakiok hiru garrenei eragindako kalteen erantzukizuna hartu behar izatea. Era berean, ondasun horretan kalteren bat izan baldin bada, errentaria derrigortuta dago jabeari horren berri ematera, ahalik eta denbora laburrenean.

Egoera honetan, errentaria behartuta dago, ahalik eta azkarren, bere etxera sartzen uztera, behar diren konponketak egin ahal izateko. Lagako ez balu, berak erantzun beharko luke behekoiei eragin dien kalteagatik.



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



7 urte handi, **Xabat!** Oso ondo pasatu genuen zure urtebetze egunean. Segi horren alai eta jator!



Zorionak, **Ane,** asteartean 4 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxeko eta bereziki, Iker eta Mirenen partez.



Zorionak, **Libe,** domekan urtetxo bat bete zenuelako. Etxeko eta bereziki, neba Lukenen partez, muxu bat,



Aupa, **Olatz,** apirilaren 17an 8 urte egin zenituelako. Primeran pasatu genuen. Muxu potolo bat etxeko eta bereziki,




Zorionak, **Nahia!** Asko maite zaitugu. Muxu handi bat Elgoibarko familiako partetik.



Zorionak, **Irati!** 4 urte potolo beteko dituzu asteazkenean. Ondo pasa! Aitatxo, amatxo eta Madiren partez.



Zorionak, **Ilune,** gaur 7 urte egin dituzulako. Ondo pasa! Muxu handi bat etxeko eta bereziki, Maitaneren partez.



Zorionak, **etxeko printzesa!** Atzo 4 urte! Etxeko eta bereziki, Alain, Julen eta Enairen partez.



Zorionak **etxeko altxorri,** apirilaren 12an 2 urte egin zituelako. Muxu handi bat etxeko eta bereziki,

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.

Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

#### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.

Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

## LAN DEIALDIA

ELGOIBARKO IZARRAK  
BEGIRALE TITULUA DUTEN  
HEZITZAILEAK BEHAR DITU

### ESKATZEN DA:

- Begirale titulua izatea.
- EGA edo euskara maila altua izatea.

### BALORATUKO DA:

- Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak amaituta izatea.
- Aisialdian lan-eskarmentua izatea.
- Jarrera dinamikoa eta sortzailea izatea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna izatea
- Hezkuntza Premia Behar Bereziatiko ikasketak edota esperientzia izatea

Curriculumak AURKEZTEKO epea: apirilak 28, ostirala.  
[kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus](mailto:kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus) edo 943 741 626 (Amaia).



**LubaNails**  
Zure azazkalak eskurik onenetan  
www.Facebook.com/LubaNails22  
634 41 41 95

**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA  
optika audio  
San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359 [www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

EGUZKITAKO  
BETAURREKOETAN  
AUKERA ZABALA.

19€ gehiagogatik  
GRADUATU ITZAZU!

\* Kontsultatu baldintzak

## 21 BARIXAKUA

**18:30** Erakusketa: Eskuz elkartekoen lanak jarriko dituzte ikusgai, Kultur Etxeko erakusketa gelan, hilaren 28ra arte. Astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era.

**20:30** Zartzuela: 'El dúo de la Africana'. Herriko Antzokian.

## 23 DOMEKA

**16:30** Antzerkia: 'Shine again'. Herriko Antzokian.

## 24 ASTELEHENA

**19:00** Epeletan literatur tailerra: Alaa al Aswanyren *Jakobian eraikina* liburua landuko dute. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

## 27 EGUENA

**10:00** *Ekonomia Gurean* saioa. Debarreneko ekonomiari buruzko jardunaldia. IMHn.

**17:00 eta 17:30** Amaia Fernandez ipuin kontalariak bi saio eskainiko ditu Gotzon Garate Udal Liburutegian.

## 28 BARIXAKUA

**17:00** Kiribilka egitasmoa, Maalako parkean. Elgoibarko Izarrak antolatuta.

**18:00** Ludoteka ibiltaria, Maalako parkean.

**20:30** Jonas Kaufmann-en aurrez aurreko errezitaldia, Herriko Antzokian.

## Zinea (Herriko Antzokian)

'Es por tu bien'

22 zapatua:

19:00 / 22:15 VOS

23 domeka: 19:00

24 astelehena: 21:30



### Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### Guardiak

**09:00 - 22:00**

21 Barixakua ETXEBERRIA  
22 Zapatua FERNANDEZ  
Goizez: GARITAONANDIA  
23 Domeka FERNANDEZ  
24 Astelehena YUDEGO  
25 Martitzena ORUESAGASTI\*  
26 Eguaztena BARRENETXEA  
27 Eguena IBAÑEZ\*  
28 Barixakua GARITAONANDIA

**20:00 - 22:00**

\* Guardia Elgoibartik kanpora denean, asteburuetan ezik:  
BARRENETXEA (Elgoibar) - Errosario, 26  
Tel.: 943 741 277

**22:00 - 09:00**

MANDIOLA (Eibar) - San Agustin, 3  
Tel.: 943 820 533

- FERNANDEZ: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel.: 943 756 142  
- IBAÑEZ: Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel.: 943 751 638  
- ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 (Soraluze)  
Tel.: 943 751 384

## Julian Garay Diego

"Montaña"

2017ko apirilaren 12an hil zen



**Julian izenez,  
izanez gizon on bezain umila  
zure inguruan giro ona eta  
zoriontasuna sortzen abila,  
gurekin eramango dugu  
zuk utzitako handitasunaren makila.  
Zauden lekuan zaudela,  
zure dizdira gure bidelagun izan dadila**

Etxekoak

Zuen iritzia guretzako garrantzitsua delako.



Eskerrik asko asebetetze inkesta  
bete duzuen guztioi!



barrena 11, EIBAR

garajesGarcía.com

Marka guztietako  
gurpiletan  
deskontuak!



www.garajesgarcia.com

g.garcia@garajesgarcia.com

Erakundeak: 943 820 697

Lanlegia: 943 202 214

943 127 271

20.500 €



CR-V 1.6i DTEC ELEGANCE 4x2  
Motorra: 1.6cm3 DTEC Diesel  
Kilometroak: 20.000  
Egoera: erabilia

14.000 €



SUZUKI GRAND VITARA 1.900i JX  
Motorra: 1.9cm3 D Diesel  
Kilometroak: 70.000  
Egoera: erabilia

6.000 €



SUZUKI GRAND VITARA 1.900i JX  
Motorra: 1.9cm3 D Diesel  
Kilometroak: 264.000  
Egoera: erabilia

9.000 €



CITROËN DS3 1.6 VTI SPECIAL EDITION  
Motorra: 1.6cm3 VTI Gasolina  
Kilometroak: 115.000  
Egoera: erabilia

10.000 €



CITROËN DS3 1.6 VTI SPECIAL EDITION  
Motorra: 2.2cm3 IDTEC Comfort  
Kilometroak: 22000  
Egoera: erabilia

4.000 €



CHEVROLET KALOS 1.2 SE  
Motorra: 1.2cm3 SE Gasolina  
Kilometroak: 120.000  
Egoera: erabilia

Prezio guzti hauek finantziazterik daude.



Ignacio  
Zuloaga  
Institutua  
Eibar



Ate irekien eguna

**Apirilak 26**

Ordua 18:00

**ARTE BATXILERGOA**

A eta D ereduetan



Jardifeta 3 Eibar . Tel.: 943206349 . Fax: 943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net



1969

Jon Ortustek ekarri digu erretratu zahar hau. 1969koa da, eta argazkian ageri dena Makillak kuadrilla da. Aita Agirre plazan jokatu zuten futbol txapelketan atera zuten argazkia. Argazkiko kuadrilla hau hirugarren sailkatu zen txapelketa hartan. Hona hemen zeintzuk diren.

**Zutik:** Francisco Zarzuelo (+), Juan Luis Arregi *Planti*, Ignacio Leher, Jose Benito Aranberri, Jose Alberto Ansola *Mauxitxa*, Ricardo Mujika, Edu Iriondo, Patxi Ajubita (+) eta Juan Luis Sariguarte. **Behean:** Manu Leizabe, Jose Ignacio Jauregi, Jon Ortoste, Joseba Konde, Jose Luis Mujika *Txeko* eta Iñaki Fernandez.

VI. URTEURRENA

## *Edurne Gabilondo Aizpitarte*

*Zurekin bizitako momentu goxoak,  
betirako izango ditugu gure bihotzetan.*

Maitasunez, Amaia, Josu, Lurdes eta Jesus





## Jose Ignacio Sarasua Garate

*Elgoibarko Musika eta Dantza Federakuntzaren sortzaile,  
presidente eta bultzatzaile nagusia izan zara.  
Zure lekukoa jaso eta aurrera jarraitzen saiatuko gara.  
Ikusi arte, Sarasua.*



## Jose Ignacio Sarasua Garate

*Handia izan da Elgoibarko kulturgintzan laga duzun arrastoa.  
Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik,  
ez zaitugu inoiz ahaztuko.*



## Jose Ignacio Sarasua Garate

*Zure oroimenak indartzen gaitu.*



**ELGOIBARKO UDALAREN  
TXISTULARI TALDEA**

# Gremioen gida

Aroztegiak  
Elektrizitatea  
Igeltseritza  
Iturgintza  
Leihoak  
Pintura

## ELEKTRIZITATEA

**iparelek s.l.**  
elektrizitatea  
Kilimon hiribidea, 1 - Mendara  
943 530 356  
iparelek@gmail.com  
iparelek@iparelek.com

**CARRANZA,**  
ELEKTRIZITATEA  
Uparitzaga 10, 8.B  
Elgoibar  
karranzaj@gmail.com  
Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 625 555 999

**egoluz**  
ELEKTRIZITATEA S.L.  
(lehen TAES)  
Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR  
Andres: 630 957 345  
Raimon: 677 512 462  
Bulegoa: 943 200 697

## LEIHOAK

**LODOSO LEIHOAK**  
SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
lodosofj@gmail.com  
Tel.: 943 74 34 90

## ERREFORMAK

**ESTUDIOS ARRILLAGA**  
Errerosio kalea, 15 behea - Elgoibar  
943 744 019  
605 713 168  
\* Proiektuak  
\* Erreformak  
\* Gremioen koordinazioa  
\* Obren zerbitzu integrala

## ITURGINTZA

**SANTANA**  
Igor Santana  
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.  
Urazandi kalea 17, behea  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
santanaiturgintza@gmail.com

**PAGOERROTA ITURGINTZA**  
Henriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
943 75 60 44 / 628 529 692  
Faxa: 943 75 60 37  
pagoerrota@pagoerrotaiturgintza.com  
www.pagoerrotaiturgintza.com

**ONGI** Iturgintza  
Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR  
Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523  
ongi@ongielgoibar.com  
www.ongielgoibar.com

**FONTANERÍA Ibámar**  
ITURGINTZA  
San Roke 10-A, behea B  
Elgoibar  
Floren Cid: 647 463 436  
ibamar@euskalnet.net

**TELLABIDE**  
ITURGINTZA  
Azpilgoeta 7 behea - Mendara  
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062  
iturgintzate'llabide@hotmail.com

**PAGOAGA S.A.**  
BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Urzuzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565  
senda@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com  
BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
taller@pagoagasa.com  
ELGOIBAR

## AROZTEGIAK

**BICNA S.L.**  
AROZTEGIA  
Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax: 943 743 116  
www.bicna.eus  
info@bicna.eus  
f

**MAR**  
AROZTEGIA  
Olaso industriagunea, 17 behea  
943 531 471  
609 054 978  
carpinteriaimar@hotmail.com  
f

**iraolagoitia**  
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak  
Kurutz-gain Industriagunea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485  
www.iraolagoitia.com

**ASIMA**  
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar  
687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225  
asimaaroztegia@gmail.com

**Ulazia**  
AROZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P  
943 740 547

## IGELTSERITZA

**E. ARANDIA**  
ERREFORMA ETA LEIHOAK  
Urasandi, 22 behea - Elgoibar  
Tel.: 605 705 204  
Gremioen arteko koordinazioa.  
Pladurarekin ere lan egiten dugu.

**IGELTSERITZA CAMILO ALVAREZ**  
Jardiñeta, 25 behea  
EIBAR  
Ernesto: 620 060 104  
Fran: 600 465 789

**A. Garate**  
Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua  
angelmgarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia  
Elgoibar  
**610 226 651**

## PINTURA

**BIOK**  
dekorazioa  
Uparitzaga, 14 - Elgoibar  
943 741 552  
606 431 120  
biok@biokdekorazioa.com

# Gremioen gida